



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura
Eguna: 2018ko abenduak 26
Ordua: 14:15 – 14:20
Lekua: Udaletxe ko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Joseba Elejalde Ribacoba

Unai Gotxi Kastrexana ez da bertaratu, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 14:15ean, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1.- ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) plana onartzea, Artziniegako Udaleko 2018-2022 Plan Estrategikoa.

Alkatea: abenduaren 31 baino lehen onartuta egon behar duten bi puntu dira. Irakurriko dut.

“2018-12-20AN EGINDAKO ARTZINIEGA KO UDALAREN INFORMAZIO BATZORDEAREN AKORDIO-PROPOSAMENA.

IKUSIRIK proposamena ESEP izenekoa, (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) plana, Artziniegako Udaleko 2018-2022 Plan Estrategikoa,

Proposatzen da hartzea hurrengo AKORDIOA:

- 1) **Onartzea ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) plana, Artziniegako Udaleko 2018-2022 Plan Estrategikoa 2018ko abenduaren 20ko proposamen eguneratuaren arabera, eta akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzari.**

Alkatea: Zer edo zer esan nahi duzue?

Arkaitz San Jose Martinez: Bozketara bideratuko duzu edo zerbait esango duzu?

Alkatea: Esan dut, zerbait esan nahi baduzue.

Ascension Hormazabal Meabe: edozein modutan nik gauza bat esango dizuet, osoko bilkuran bi puntutan bezala dago. Teknikariak akordio bat ipini du, akordio bakarra.



Arkaitz San Jose Martinez: beno, hasiera batean, guk talde modura, euskarako planak izatea, erabilera sustatzea batez ere, izan ere, nik uste dut hasiera batean herrialde mailan asko egiten ari garela aurrera ezagutzari dagokionez, orduan uste dugu erabilerara begiratu behar ziola batez ere, eta uste dugu plan hori norabide zuzenean doala. Agian beste moduren batean egin zitekeen, partaidetza gehiagorekin, eta oraintxe jarduerak garatzen ari diren kolektiboak aintzatetsiz, batez ere helburuen artean euskara sustatzea dutenak, baina tira, aipatu nahi genuen apur bat faltan botatzen genuela aurreko planaren balantzea. Bestela, plan hauek guztiak helburu tekniko bilakatzen dira eta agian teknikarien lana orientatzen dute apur bat, baina ez dakigu oso ongi burutzen ari diren kontuak arrakasta izaten ari diren ala ez, ez baitago nola geunden eta nola gauden adierazteko balantzerik. Eta hori lagungarri izango litzaiguke, era berean, ildo egokietan erreparatzen ari garen ala ez ikusteko. Eta, beste alde batetik, era berean, ikusi beharko genuke 2018-2022 plan estrategiko modura ulertzen dugun, tira bada dagoeneko 2019an gaude ia, pentsatzen dut euskararen eremuko helburuen artean...

Ascension Hormazabal Meabe: astirik gabe nengoen aurkezteko.

Arkaitz San Jose Martinez: Kuadrillarena, azken batean hura baita euskara-zerbitzua ematen diguna, beno, 2018an zehar egin beharko zukeen, baina tira, 2018an gaude dagoeneko... Eta aurrekoa ia iraungita zegoen aurreko urteko azarotik. Orduan uste dugu, orain onartzea, ezohiko bat egitea, urte osoa izan dugunean. Eta jakingo bagenu egiazko lan bat egin delako dela, bada hori, herritarrekin erkaketa eginez, kolektiboetara joz, herri bakoitzean nor mugitzen ari den ikusiz, euskara erabiltzeko espazioak bilatzen ari ote diren ikusiz eta abar, bada horrek guztiorrek badu zentzua. Baina azken batean pentsatzen dugu 2018an onartu behar dela bestela, ez delako diru-laguntza sartzen eta abar, bada tira, etsigarri samarra da. Batez ere agian, gai garrantzitsua dela uste dugulako.

Alkatea: ez dizut ezetz esango, egia baita urtean zehar lan egin zitekeela eta ez da halakorik egin. Baina tira, orain iristen da, orain onartu behar da, eta uste dut, ez soilik planaren amaieran, urtean zehar ere lan egin beharko litzatekeela. Nik uste dut agian hurrengo plan hau... egiten joan.

Joseba Elejalde Ribacoba: nire ustez planak ongi daude, uste dut plan estrategiko hori beharrezkoa dela, baina nik gauza bera esaten jarraitzen dut. Teknikariak lau urtetik behin aurkezten digu, eta ondoren ez da proposamen zehatzik garatzen. Azken batean nik beti esaten dut hau paper bustia dela. Kontu erdiak Eusko Jaurlaritzatik datoz. Nik uste dut Laudion aurkezten den plan bera dela, izena aldatuz, Amurrion, izena aldatuz, eta azkenean beti berdinetan gaude, ez dugu osorik garatzen euskara erabiltzeko plan estrategiko bat. Azken batean ideiak ematen dizkigute, baina ondoren ez da modu zehatzean garatzen eta urtekako analisisekin, Arkaitzek orain esan duen moduan, zertan hobetu da? Zertan hobe dezakegu? Zenbat jendek parte hartu du? Zein kolektibok? Nik uste dut azkenean planean geratzen garela. Proposamen liluragarria da, teknikari batek egina, edo bik edo zazpik, baina ondoren egiaz ez dena gauzatzen urtero. Gauzak egiten dira, jakina, azken urteetan hobetu da, erabat ados nago, baina niri, eta azken urteotan esaten ari naiz, lastoa kendu eta eduki gehiago sartzea falta zait. Egiazko planak, urtero garatuak, eta urtearen amaieran teknikaria etorri eta egin dena azal dezan, nola egin den, partaidetzak, zertan hobetu den, zerk egin duen okerrera, zer hobe daitekeen... Nire ustez hori da beti faltan bota izan dudana.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).



Onartuta geratu da.

2.- Artziniegako Udaleko Euskararen Erabilera Plana, 2018-2022 Plan Estrategikoa, onartzea.

Alkateak akordioaren proiektua irakurri du.

“2018-12-20AN EGINDAKO ARTZINIEGAKO UDALAREN INFORMAZIO BATZORDEAREN AKORDIO-PROPOSAMENA.

Ikusirik proposamena ESEP izenekoa, (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) plana, Artziniegako Udaleko 2018-2022 Plan Estrategikoa,

Proposatzen da hartzea hurrengo AKORDIOA:

- 1) ***Onartzea Artziniegako Udaleko Euskararen Erabilera Plana, 2018-2022 Plan Estrategikoa 2018ko abenduaren 20ko proposamen eguneratuaren arabera, eta akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzari.***

Alkatea: beno, agerraldia egin nahi baduzue, nik uste dut sakoneko eztabaida berdina izango dela, baina agerraldia egin nahi baduzue.

Arkaitz San Jose Martinez: beno, gogoeta apur bat berdina da. Beno, kasu honetan apur bat zehatzagoa izan behar da hala izan behar baitu, eta azken batean Lanpostuen Zerrendarako hizkuntza-eskakizunak ezartzea da kontua eta beno, arrazoi ere ez, guri iruditzen zaigu lanpostuak profil batekin joan behar direla, eta kasu honetan ere ez dirudi orain dagoen inori eragingo dionik baizik eta etorkizunari begira da gehiago, bada ongi iruditzen zaigu. Niri partikularki deigarria iruditu zait, nik uste nuen jende gehiago zegoela Lanpostuen Zerrendan.

Bozkatu egin da:

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren arratsaldeko ordu biak eta hogei minutuan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.